

## Komunikazioa →

## A ze parea, arranoa eta balea


**Ekografiak**  
**Eñaut Gantxegi**

**B**ai, badakit ez dela hala esaera, baina gauzak eraldatzea izan ohi da nire affiziotako bat. Eta telebistan hori eguneroko ogia dela esatea ez da nobedade bat, ezta? Nobedadeak uda honetan izan ditugu, eta ho-

rietako bat Antena 3 katean, *Vaya Par!* izenburupean jaio zaigun prentsa arrosa ardatz nagusi duen saioa. Egia esan, batek baino gehiagok harridura aurpegia jarriko zuen saioan ageri izan den hirukotea ikusita: Jesus Mariñas, Maria Patiño eta Julian Iantzi. Lehenengo biak halako saioetan ohikoak dira, eta unibertso arrosan (zein kanpo) dabilen guztiak larrutzen abilak dira. Nafar jatorriko ile horiarentzat, ordea, lehen aldia dela esango nuke. Iantzik askotan lorontziaren eginkizuna betetzen zuela ematen zuen. Saioaren eskema

honakoa zen: bi kazetariak famatu eta famatuak ez direnak egurtzen zituzten, eta, tarteka, Julianek bide ematen zion beste gai bati edota publizitateari.

Lehenaldian ari naiz hitz egiten, oraindik saioa ematen ari badira ere, Iantzik ez baitu jarraitzen saioan. Udako aurkezlea edo ikusleen biktima? Ez dakigu zein izango zen motiboa, baina emaitza argi dago: ez du saioan jarraitzen, eta bere ordezkoztat, gai horietan ezagunagoa den Ximo Rovira kazetari katalana dago orain. Nire inguruko askok (eta ziur nago jende gehiagok ere) es-

kuak eraman ditu burura, *Basetxea, El conquistador del fin del mundo* eta antzeko saioen aurkezlea erregistro berri batean ikustean. Baina nik txalotu egiten dut emandako pausoa, aurkezle batek gauza berriak probatu behar baititu, ditugun aurreiritziei muzin egin, eta profesional gisa aurrerapausoak eman behar baititu.

Hala ere, prentsa arrosa ez da bere terrenoa, saioz saio hori ikusi izan baita, are gehiago halako bi bele beltz izanda. Iantzi ez dago oraindik prentsa arrosako saio bat gidatzeko bezain jantzia, eta

informazioaz gain, unibertso horretan lantzen diren klabeak kudeatzeko jantzi gabe ikusten zaio. Bere ordezkoa ordea —Ximo Rovira— prentsa arrosarako iaioa da, eta jendea lumatzeko saio horretan (nire ustez, beste hainbat saio baino formatu egokiagoa duelarik) bere saltsan egongo da.

Esamesekin amaitzeko, badi-rudi, Julianek arrosa mundutik ez duela hain erraz alde egingo. Izan ere, Ana Rosa Quintanaren taldera igaroko den zurrumurua bolo-bolo dabil. *La vie en rose...*

## II. Mundu Gerrako mugalari sarearen inguruko telefilma grabatzen hasi dira

ETBko telesail bihurtuko da, gabonak aldera, Mireia Gabilondoren eta Fernando Bernuesen 'Mugaldekoak'

**Edu Lartzaguren**

Estreinatzen dutenean *Mugaldekoak* izango du izenburu. Egunotan Goizuetan (Nafarroa) grabatzen ari dira telefilma, eta Euskal Herriaren II. Mundu Gerran aritutako mugalari sarearen inguruko istorioa kontatzen du. Alemanek okupaturiko lurraldeetan eroritako pilotu aliatuei naziengandik ihes egiten laguntzen zieten emakume eta gizonen benetako abentura azalduko du. Mireia Gabilondo eta Fernando Bernues zuzentzen ari dira istorioa, politika, maitasuna eta akzioa biltzen dituen lana.

«Soka horiekin egiten ari zaretena, hori bai filma», dio Tentazioak ekoiztetzeko motor gidariak, kamera bizkarrez bizkar estu lotzen diotenean. Jazarpen sekuentzia bat grabatzen ari dira Artikutza izango basoan. «1940 inguruko auto bat zaldun bati jazarpen zaio, eta, azkenean, istripua gertatzen da guri batekin», laburbildu du Mireia Gabilondo zuzendariak (*Kutsidazu bidea, Izabel*).

Fernando Bernuesekin zuzentzen ari da filma Gabilondo, eta, horrez gain, aktore protagonista da, Isidoro Fernandezekin (*Ander eta Yul, Kutsidazu bidea, Izabel*). «Aldi berean zuzentzea eta antzeztea ordaindu egiten da gero», dio barrez, «baina proiektua geuk sortutakoa izanda, errazagoa da». Tentazioak ekoiztetxe-



Jazarpen sekuentzia bat grabatu dute egunotan Artikutza (Nafarroa). **BERRIA**

ak ETBrentzat ari da egiten telefilma, eta Gabonak aldera estreinatzeko asmoa dute. Gainera, hamahiru ataleko telesaila egingo dute. «Telefilma jendea erakartzeko nahi dugu, gero telesaila apalagoa izango da, eta platoon egindako lan gehiago izango du», dio Ane Antoñanzas ekoizleak.

**Mugako istorioa eta historia**

Artikutzako baso hezeak hainbatetan erabili dituzte zinemagintzan. *Balbemendi* telesaila grabatu zuten han duela bi urte. «Guretzat leku naturala da», dio Gabilondok, «errazago baita garraioa hemenean egitea, baina, horrez gain, mugako istorioa delako eta muga hortik pasatzen zelako benetan».

Andree de Jongh belgikarrak sortu zuen Comete Sarea 1941. urtean. Pilotuak Euskal Herriatik Espainiara eta gero Gibraltarrera pasatzen zituzten. Denera 800 bat aliatu askatu zituzten, nazien kontra borrokatzera itzul zitezten. Florentino Goikoetxea hernaniarra izan zen haien laguntzaile nagusietako bat Euskal Herrian. Naziek tirokatu eta atxilotu egin zuten, 1944an, baina Angeluko (Lapurdi) erresistentziako lagunek alemaniarrez mozarrotu eta askatu egin zuten Baionako erietxetik. Telesailan agertuko da.

«Harrigarria da iraganak gure bizitzan berriz sartzeko duen joera ahaztuta dagoela uste duguneko», dio Bernues zuzendariak, eta adibide bat jarri du ideia azaltze-

ko: Goikoetxeari dominak eman zizkion Frantziak, Erresuma Batuek, AEBek, Australiak... Baina Hernaniko Udalak (Gipuzkoa) duela urte batzuk omenaldia egin zionean, PPK uko egin zion ekitaldian parte hartzeari. «PPkoen eskutitza irakurri nuen lehengoan, eta eman zituzten argudioek hontzikara sortu zidaten».

Filmak Florentino Goikoetxea eta De Jongh pertsonaia fideltasunez erretratatu dituela agindu du Bernuesek. «Istorio honek kimika politiko eta sozial indartsua du, eta lur ondua aurkitu dugu, buruan genuen maitasun istorioa kontatzeko».

Egitasmoan aktore izango diren artean daude Iñaki Beraetxe, Sara Cozar eta Klara Badiola.

**→ Laburrak**
**EITBko kontseiluaren osaketa salatu du LABek**

**KOMUNIKABIDEAK** ▶ EITBko Administrazio Kontseiluan lanegileen ahotsa sindikaturik txikienari —CCOOri— eman diotela salatu du LABek prentsa ohar baten bitartez. LABek salatu du Legebiltzarreko alderdi nagusiek Administrazio Kontseilua aukeratu dutela dagoeneko, nahiz eta hautagaiak aurkezteko epea amaitu ez den. Aurrekoan UGTri eman zioten ahotsa kontseiluan, sindikatu horrek EITBn ordezkaririk ez badu ere. ELAk 21 ordezkaririk ditu, LABek 11 eta CCOOk hiru.

**YouTube Hollywoodekin hizketan, filmak banatzeko**

**ZINEMA** ▶ Interneteko bideo biltegi YouTube Hollywoodekin negoziatzen ari da, filmak sarearen bidez zabaltzeko ikusleei kobratuta. Filmak DVD formatuan merkatura atera bezain pronto, lanak Interneten ikusteko aukera eman nahi dute estudioek, bideoklubean alokatzeagatik ordaintzen den antzeko salneurrian, 3,99 dolar inguru kobratzea pentsatzen ari direla zabaldu du *The Wall Street Journal* kazetak (2,79 euro).

**Telesailen %20 langileei ordaindu gabe egiten dira**

**TELEBISTA** ▶ Langileei ordaindu gabeko ordu estrekin egiten dira telesailen %20, Espainiak ikus-entzunezko eta zinema teknikarien sindikatuek jakinarazi duenez (TACE). Telesailen lanean aritzen diren teknikariak 675.000 lan ordu «oparitzera» behartzen dituztela dio sindikatuak.